



## Eta gaur, zer jango dugu?

Aprende euskera con tus hijos y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/sukaldea-ipuina>

---

*Pi, pi, pi, pi...*

Aitaren iratzargailuak jo zuen eta Haizea esnatzera joan zen. Zelako logure handia zuen neskak!

—Pitxintxu, **esnatzeko ordua** da. Goazen. Altxatu pixkanaka— esan zuen aitak eta pertsianak igo zituen.

*Pi, pi, pi, pi*

Sonó el despertador del padre de Haizea y fue a despertarla. ¡Vaya sueño que tenía la niña!

— Cariño, es la **hora de levantarse**. Vamos, levántate poco a poco. — dijo el padre y subió las persianas.

Sukaldean aitak esnea berotu zuen eta zerealak jarri zituen **katilu** batean.

Haizeak **gosaldu** zuen gogotsu eta sagarren zatiak **di-da** batean jan zituen. Oso gose altxatzen da beti.

—**Tripandia zara gero**, e? Oso ondo, horrela indarrak topera!

Gosaria hartu ostean, eskolara joan ziren eta han elkar agurtu zuten.

El aita calentó la leche y le puso una **taza** con cereales. Haizea **desayunó** con ganas y se comió los trozos de manzana en **un santiamén**. Siempre se levanta con hambre.

—**¡Eres una glotona!** Muy bien, así cargas las pilas.

Después de tomar el desayuno, fueron a la escuela y allí se despidieron.

Haizearen aita **kezkatuta** zebilen aspaldi. Bere jatetxera gero eta jende gutxiago joaten zelako eta, gainera, aste horretan itxi behar izan zuen **sukaldeko** konponketa bat egiteko.

- Zerbait egin behar dut.- pentsatu zuen- Zer edo zer ezberdina izan behar da. Agian lokalaren dekorazioa aldatzea? Edo beste menu bat eskaintzea... **Etsita** nago, ezin dut gehiago. Tira, gaurko etxeko **bazkaria** prestatuko dut. Haizea ez da ezertaz enteratu behar.

El padre de Haizea llevaba tiempo **preocupado**. Cada vez iba menos gente a su restaurante y además, esa semana tenía cerrado el local porque tenían que hacer un arreglo en **la cocina**.

—Algo tengo que hacer —pensó. —Tiene que ser algo diferente. ¿Igual cambiar la decoración del local? U ofrecer otro menú.. No sé, estoy **desesperado**. Bueno, voy a preparar la **comida** de casa. Haizea no se tiene que enterar de nada.



Beti bezala, Haizeak etxean bazkaldu zuen. Mahaian eseri zen eta aitak **dilista-platerkada** eman zion.

—Zer gertatzen da? **Ondo al daude hotz-beroan?** —galdetu zuen aitak.

—Aita... dilistek... **zapore** arraroa daukate— esan zuen Haizeak.

—Ez esan lelokeriarik eta jan.

—Benetan, aita, **dastatu**.

Aitak **plater sakonetik** koilara bat hartu du eta..

—Ai, ene! Arrazoa duzu, maitia! Erreta daude. Barkatu. Ez dakit burua non dudan. Beste gauza bat prestatuko dizut.

—Lasai, aitatxo, bestela horrela jango ditut.

Haizea konturatu zen bere aita despistauta eta kezkatuta zebilela. Zer gertatuko ote zitzaion?

Haizea fue a casa a comer. Se sentó en la mesa y su aita le dio un **plato de lentejas**.

—¿Qué pasa? **¿Están bien de temperatura?**— preguntó el padre.

—Aita.. las lentejas tienen un sabor raro.— contestó Haizea.

—No digas tonterías y come.

—Aita, de verdad. **Pruébalas**

El padre cogió una cuchada del **plato hondo** y..

—¡Ay! ¡Tienes razón! ¡Están quemadas!

Perdona, no sé dónde tengo la cabeza. Te prepararé otra cosa.

—Tranquilo, aitatxu, sino me las como así.

Haizea se dio cuenta de que su padre estaba despistado y parecía preocupado.

¿Qué le pasará?

Gau horretan sukaldeko lagun guztiak mintzatzten hasi ziren.

—Zer egin ahal dugu Haizearen aita laguntzeko? —bota zuen **sagarrek**.

—Ez dakit. Nik gaur denbora luze egon naiz piztuta eta burua bero-bero daukat. Ezin dut pentsatu— esan zuen **labeak**.

—Baina zerbait diskretua izan behar du—esan zuen **azaloreak**.

—Bai, zure usain modukoa!— erantzun zion **zartagin** batek, eta guztiak barrezka hasi ziren.

—Plan bat **su txikian** pentsatu behar dugu—jarraitu zuen **lapikoak**

Esa noche todos los amigos de la cocina empezaron a hablar.

—¿Qué podemos hacer para ayudar al aita de Haizea?— soltó la **manzana**.

—No sé. Yo he estado mucho tiempo encendido y tengo la cabeza súper caliente.

No puedo pensar — dijo el **horno**.

—Pero tiene que ser algo discreto— dijo la **coliflor**.

—¡Sí, como tu olor! — le contestó una **sartén**, y todo rieron.

—Tenemos que pensar un plan preparado **a fuego lento** — añadió la **olla**.



—Zuek badakizue gauza asko entzuten ditudala hemendik nire barruan— esan zuen **hozka**ilua. Gauza bat bururatu zait. Gure jabeak arazoak ditu bere jatetxean eta agian, errezeta bat asmatzen badu, jende gehiago joango zela uste dut. Behin **kipula** batek kontatu zidan plater asko kasualitatez edo istripu bati esker sortzen direla. Adibidez, ezagutzen ditugun cookie izeneko galletak emakume batek asmatu zituen nahi gabe. Emakume horrek egun batean kakao barik geratu zen eta txokolatzeko zati batzuk sartu zituen galletak egiteko **orean**. Berak uste zuen desegingo zirela, baina ez. Eta horrela, cookieak sortu zituen.

—Hori oso ideia ona da! Nik horrela orraztuko nuke plana— esan zuen **sardexkak**. Eta besteei azaldu zien berak pentsatutako plana.

—Vosotros sabéis que aquí dentro escucho muchas cosas.— dijo la **nevera**. Se me ha ocurrido una cosa. Nuestro dueño tiene problemas en el restaurante y creo que tendría más clientes si inventara una receta. Una vez, una **cebolla** me contó que muchos platos se crean por casualidad o gracias a accidentes. Por ejemplo, las “cookie” las inventó una mujer sin querer. Un día esta mujer se quedó sin cacao, y en su lugar utilizó trozos de chocolate pensando que se derretirían en la **masa**. Pero no, y así nacieron las “cookie”.

—¡Me parece muy buena idea! Yo peinaría el plan de la siguiente forma.— dijo el **tenedor**. Y explicó al resto lo que había pensado.

Hurrengo egunean larunbata zen eta aitari **ogia** egitea gustatzen zitzaion.

Masa egiteko osagai guztiak hartu zituen eta amaitu ostean labera sartu zuen.

—Etorri Haizea! Ogia prest dago, zati bat nahi baduzu!

Haizeak **ogi puska** bat hartu zuen eta, ahoan zeukanean, aurpegi arraro bat jarri zuen.

—Aita, uste dut berriro okertu zarela. Ogi honek..zapore bitxia dauka, baina oso gozo dago!

Azukrea bota diozu baita kakaoa ere? Ze ona! Esne pixka bat jarriko didazu ogia bustitzeko?

Aita **zur eta lur geratu** zen. Berriro sukaldean akatsak, zer egingo zuen buru horrekin?

Pentsatu zuen. Ogi zati bat hartu zuen eta zaporeak harritu zuen.

—Baina nola egin dut hau? Oso zapore ezberdina eta gozoa du.

Al día siguiente era sábado y al padre le gustaba hacer **pan**. Cogió todos los ingredientes de la masa y cuando terminó, la metió al horno.

—Haizea, ¡ven! ¡El pan está listo si quieres un trozo!

Haizea cogió un **trozo de pan** y puso una cara rara al metérselo en la boca.

—Aita, creo que te has vuelto a equivocar. Este pan.. tiene un sabor muy extraño... ¡pero está muy rico! ¿Qué le has echado? ¿Azúcar... y cacao? ¡Qué bueno! ¿Me pones un poco de leche para que unte el pan?

El padre se **quedó de piedra**. ¿Otra vez errores en la cocina? ¿Qué iba a hacer con su cabeza? —pensó. Cogió un trozo de pan y el sabor le sorprendió.

—¿Pero cómo he hecho esto? Tiene un sabor muy diferente, pero está muy rico.



**Gatzontzian** begiratu zuen eta han zegoen errezetaren gakoa. Gatza ez zen gatza, baizik eta azukrea eta kakaoa nahastuta zeukan azukreak.

—Laztana, entzun. Akatsekin asko ikasten da eta gauza onak atera ahal dira. Adibidez, gaur nahi gabe “gozogia” asmatu dut. Nahiz eta okertu, zu segi aurrera.

—Aita, zure gozogia asko gustatzen zait— **mauka-mauka** jaten zuen Haizeak aitak asmatutako errezeta.

Miró en el **salero** y ahí estaba la clave de la receta. La sal no era sal, sino azúcar mezclado con cacao.

—Cariño, escúchame. Con los fallos se aprende mucho y se sacan cosas buenas. Por ejemplo, hoy he inventado el “gozogia”. Aunque te equivoques, tú sigue adelante.

—Aita, me gusta mucho tu “gozogia” — dijo Haizea comiendo **a dos carrillos** el invento de su padre.

Sukaldeko lagun guztiek irribarre egin zuten. Euren planak arrakasta itzela izan zuen! Aita ez zen konturatu bera ez zela izan azukrea eta kakaoaren aldaketaren erruduna eta errezeta izugarria zen. Zelako poza hozkailuak, lapikoak, **koilarak**, labeak, azaloreak eta besteek hartu zutena!

Todos los amigos de la cocina sonrieron. ¡Su plan había sido un éxito total! El padre no se había dado cuenta de que él no había sido el culpable del cambio del azúcar y la sal, y además, la receta estaba genial.

¡Qué alegría para la nevera, la olla, la **cuchara**, el horno, la coliflor y los demás!

Haizearen aitak hurrengo astean berriro jatetxea ireki zuen eta bere “gozogia” saltzen hasi zen. Jendeari asko gustatu zitzaion eta berriro **bezeroak** izan zituen jatetxeak. Gogoratu, ondo jaten baduzu, ideia gehiago izango dituzu eta akatsak izanez gero, asko ikasiko duzu.

El aita de Haizea abrió el restaurante la siguiente semana y empezó a vender el “gozogia”. A la gente le encantó y de nuevo empezó a tener **clientes** en el local.

Recuerda, si comes bien, tendrás más ideas y si cometes fallos, aprenderás mucho.